



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/14

207 persona eta kolektibok alegazinoak aurkeztu ditue 2019ko Aurrekontuen Proiektuaren aurrean

Atzo bukatu zan herritarren banakako edo taldeko alegazinoak aurkezteko epea, eta 207 herritarrek, kolektibok, alkartek eta GKEk alegazinoak aurkeztu ditue aurton 2019ko Aurrekontuen Proiektuaren aurrean, oso arazo bereziei erantzuteko edo hainbat gaitan Aldundiaren esku-hartzea eskatzeko.

Gaiak dirala eta, erregistrautako alegazino guztiak ia hamar gairen inguruan laburbildu daitezke. Ranking horretan azpimarratzekoa da 165 personak eta kolektibok sinatu dabenek alegazinoa, 60.000 euro bideratzeko Down Syndromearen eta beste adimen urritasun batzuen Euskadiko Fundazioaren (DSEF-FSDPV) Prestakuntza Programara.

Horren ostean, Errekaldeko saihebidetaren eraikuntzagaz eta Errekaldetik igaroten dan A8ko bide-zubia eraisteagaz erlazionautako 34 alegazino dagoz; horreetako batzuk, “Errekaldetik igarotean A8a lur azpian sartzea” be aitatzen dabe, bide-zubia egin beharrean. Gehienek, obra horreen kostua 152 milioi eurotan baloretan dabe, baina beste alegazino batzuetan kostua 50 milioira murrizten da, eta baita 20 milioira be. Jarduketa horri aurre egin ahal izateko, proposamena aurkeztu dabenek adierazo dabe Errekaldeko saihebidetaren finantzetako murriztu beharko litzateken gastua Supersur izenekoaren luzapena dala.

Alegazinoen batek, Supersur izenekoaren luzapena bertan behera iztea proponiduten dau, “babestutako gune naturalaren suntsiketean” saihesteko eta, bere eretziz, “oso gitxi erabilten dan eta diru galerak eragiten dituan scalextric bat luzatzea” baino ez dalako.

Beste alde batetik, Batzar Nagusiek, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko sailaren aurrekontua handitzea eskatzen dabenek alegazino bi erregistrau ditue, baina zenbatekoa zehaztu barik. Bizkaiko Basozainak alkartearen eretziz, hazkunde hori beharrezkoa da, beste gauza batzuen artean, Basozainen lan taldea handitzeko, Peoien eta Arduradunen lan taldea handitzeko, ibilgailuen flotea barriztetako, jantziak barriztetako edo behar egiteko materiala eskuratzeko.

Norbanakoen alegazinoei jagokenez, Bizkaiko herritar batentzat beharrezkoa da “iraunkortasuneko sailaren aurrekontua handitzea, bioaniztasuna, basoen hobekuntzea eta naturaren babesaren” behar dan moduan bultzatzeko. Gehitu dauenez, “aurrekontua %15 murriztu jakon saila izateak, Aldundiak bioaniztasunaren, naturaren babesaren eta etorkizuneko belaunaldien aurrean daukan interes faltea erakusten dau” eta, aldi berean, ganerako sailen aurrekontuak murriztea proponiduten dau, “diru bilketan inoizko markak gairatu diran urtean iraunkortasuneko sailaren aurrekontuak behera egitea aluzinagarria iruditzen jatelako”.

Beste alde batetik, Foru Aldundiko eta Erakunde Autonomoetako Enpresa Batzordeak aurkeztu dauenek alegazinoa azpimarratu behar da, GUFeko Egoitza Harrera Unidatean (E.H.U.-U.A.R.) administrari postu bi eta lau teknikari gehitzeko. Euren dokumentuan,

hori justifiketako, “unidadeak daukan larregizko lan kargea eta oso kasu sentsibleen metaketean ikusita, beharrezkoa da behargin gehiago hartzea atoa” esaten dabe. Alegazino horren zenbatekoa 250.000 euro inguruan baloretan da.

BESTE ALEGAZINO BATZUK

Herritarrek kulturagaz eta azpiegiturakaz erlazionautako alegazinoak be aurkeztu ditue. Persona bik Euskadiko Meatzaritzaren Museoaren kanpoaldeko urbanizazinarako alegazinoak aurkeztu ditue. Biek be, Gallartako Museoan pieza handiak jasoko dituan kanpoko erakusketea instalaletako eta aparkalekua egokitzeko 45.000 euro bideratzea iradokiten dabe.

Beste alde batetik, Karrantza Naturala alkarteak alegazino bi aurkeztu ditu. Lehenengoa 150.000 eurokoa da, animaliak jasoten dituan El Karpin zentrorako. Zuzkidura hori atarateko, taldeak “ordezkaritzako, publizidadeko eta Supersurreko gastuak” murriztea planteetan dau. Karrantza Naturala alkarteak beste alegazino bat be aurkeztu dau, zenbateko ekonomikoa zehaztu barik, Karrantzan ur zikinak arazteko estazinoa martxan jarteko eta BI 360 foru errepidean espaloiak eregiteko.

AURREKONTUEN GAINEKO EZTABAIDE EGUTEGIA

Aurrekontuen gaineko eztabaidea, prozesua urtea bukatu aurretik amaitu daiten dago antolatuta. Herritarren banakako edo taldeko alegazinoak aurkezteko epea bukatu ostean, Batzar Nagusietako Mahaiak epea zabalduko dau batzarretako sei taldeek (Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa) aurrekontuen aurreko zuzenketa-eskeak aurkeztu daiezan.

Jatorrizko testuari aurkeztu beharreko zuzenketa-eskeak aurkeztu eta gero, Bizkaiko Batzarrek aztertuko ditue, lehenengo osoko saioa deitu aurretik. Saio hori abenduaren 12an izango da, eta bertan testu osoaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak eztabaidatuko dira lehenengo. Osoko bilkura horren ostean, beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak batzordean eztabaidatuko dira. Eta batzarretako izapidetzea hilebete horren bukaeran amaituko litzateke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dituan beste osoko bilkura batez.

14/11/18

207 personas o colectivos han presentado alegaciones al Proyecto de Presupuestos de 2019

Finalizado ayer el plazo para la presentación individual o colectiva de alegaciones ciudadanas, un total de 207 ciudadanos particulares, colectivos, asociaciones u ONGs han presentado este año alegaciones al Proyecto de Presupuestos de 2019 para responder a problemáticas muy específicas o sugerir la intervención de la Diputación en diferentes temas.

Por cuestiones, el cómputo total de alegaciones registradas puede agruparse en casi una decena de temas. En este ranking destaca una alegación suscrita por 165 personas o colectivos para destinar una dotación de 60.000 euros al Programa de Formación de la Fundación Síndrome Down y otras discapacidades intelectuales del País Vasco (FSDPV).

Le siguen, en segundo lugar, 34 alegaciones en torno a la construcción de la variante de Rekalde y derribo del viaducto de la A8 a su paso por Rekalde; incluso, en algunas ocasiones, hacen alusión a un “soterramiento de la A8 por Rekalde”, en vez de a la variante. La gran mayoría valoran su costo en 152 millones de euros, pero también hay otras alegaciones que lo reducen a 50 millones o incluso a 20 millones. Para hacer frente a esta actuación, los y las proponentes manifiestan que el gasto que debiera ser reducido para financiar la variante de Rekalde es la ampliación de la Supersur.

Alguna alegación justifica la supresión de la ampliación de la Supersur para evitar “destrazo de la zona natural protegida” y por suponer, en su opinión, la “ampliación de un *scalextric* infrautilizado y deficitario”.

Las Juntas Generales, por otra parte, han registrado dos alegaciones en las que se solicita el incremento del presupuesto para el departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, aunque ninguna especifica la cuantía. Este incremento es necesario, según la asociación Bizkaiko Basozaiñak para, entre otras cosas, ampliar la plantilla de Agentes Forestales, ampliar la plantilla de Peones y Capataces, renovar la flota de vehículos, renovar el vestuario o para adquirir material de trabajo.

A título individual, un ciudadano vizcaíno ve necesario “aumentar el presupuesto del departamento de sostenibilidad para impulsar, como es debido, la biodiversidad, la mejora de los bosques y la protección de la naturaleza”. Añade que “sea el departamento al que se le ha reducido el presupuesto un 15% denota desinterés por parte de la Diputación hacia la biodiversidad, la protección de la naturaleza y hacia el futuro de las nuevas generaciones”, al tiempo que sugiere que se reduzcan los presupuestos de los demás departamentos pues “que baje el de sostenibilidad, habiendo récord de recaudación de ingresos, me parece alucinante”.

Por otra parte, destaca una alegación proveniente del Comité de Empresa de la Diputación Foral y Organismo Autónomo para la dotación de dos puestos de administrativos y cuatro puestos técnicos en la Unidad de Acogimiento Residencial de IFAS (U.A.R.). En el documento lo justifican con la afirmación de que “creemos que la excesiva carga de

trabajo de la unidad, así como la acumulación de casos tan sensibles, hace urgente el incremento de personal”. El importe aproximado de esta alegación es valorado en 250.000 euros.

OTRAS ALEGACIONES

La ciudadanía también ha presentado alegaciones de carácter cultural y de infraestructuras. Dos personas han presentado alegaciones para la urbanización del exterior del Museo de la Minería del País Vasco. Ambas sugieren destinar una dotación de 45.000 euros para instalar en el Museo de Gallarta una exposición exterior con grandes piezas de la colección y para habilitar un aparcamiento del Museo.

Por otra parte la asociación Karrantza Natarala, ha presentado dos alegaciones. La primera, valorada en 150.000 euros, para el centro de acogida de fauna El Karpin. Para incluir esta dotación, el colectivo plantea la reducción de “gastos de representación, publicidad y de la Supersur”. Karrantza naturalak ha avalado una segunda alegación sin especificar cuantía económica para la puesta en marcha de una Estación Depuradora de aguas residuales en Karrantza y para construir aceras en la carretera foral BI 360.

CALENDARIO DE PRESUPUESTOS

El debate de los Presupuestos está ordenado para que el proceso culmine, previsiblemente, antes de que acabe el año. Finalizado el plazo para presentar alegaciones ciudadanas, la Mesa ha abierto el plazo para la presentación de enmiendas por parte de los seis grupos junteros (Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia, Popular Vizcaíno y Mixto).

Una vez presentadas las enmiendas al texto original, la Cámara vizcaína procederá al análisis de las mismas como paso previo a la convocatoria de una primera sesión plenaria, que se celebrará el 12 de diciembre, para debatir en primer lugar las enmiendas a la totalidad. Tras este pleno, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario finalizaría, previsiblemente, a finales de ese mismo mes con un nuevo pleno que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.